

Donostia, 2024ko azaroaren 27a

## 147/24 PRENTSA OHARRA

### ALDAKETAK GABONETAKO ARGIAK PIZTEKO EKITALDIA DELA-ETA

Azaroaren 29an, ostiralean, Gabonetako argiak pizteko antolatu den ekitaldia dela eta, **18:00etatik 19:30era** gutxi gorabehera, eta ondorioz aldaketa hauek egingo dira Dbuseko zerbitzuetan:

#### • 5-Benta Berri, 16-Igeldo, 18-Seminarioa eta 25-Benta Berri-Añorga:

- Erdialderantz: bukaerako geltokiak Urbieta 6an eta Urbieta 20an edukiko dute, hurrenez hurren.  
Askatasunaren Hiribidea 31ko geltokia, Okendokoak, Boulevardekoa eta Gipuzkoa Plazakoa kenduko dira eta **Urbieta 6ra edo Urbieta 20ra** eramango dira, hurrenez hurren.
- Antigu alderantz: ohiko ibilbidea Urbieta 6-20tik aurrera.  
Boulevardeko geltokiak eta Gipuzkoa Plazakoa kenduko dira eta **Urbieta 6ra edo Urbieta 20ra** eramango dira, hurrenez hurren.

#### • 21-Mutualitateak-Anoeta, 26-Amara-Martutene eta 28-Amara-Ospitaleak:

- Erdialderantz: ez dute ibaiaren aldetik jarraituko, eta Antso Jakitunetik Mendeurrenerantz eta Easo kalerantz jarraituko dute. Askatasunaren Hiribidetik Urbieta kalerantz iritsiko dira eta Urbieta 6an-12an egingo dituzte bukaerako geltokiak.  
Okendoko geltokia, Boulevardekoa, Gernikako Arbolakoa eta M<sup>a</sup> Cristina Zubikoa kenduko dira. **Urbieta 6ra eta 12ra** eramango dira.
- Amara alderantz: ohiko ibilbidea Urbieta 6-12tik aurrera.  
Boulevardeko geltokiak kenduko dira eta **Urbieta 6ra eta 12ra** eramango dira.

#### • 19-Aiete-Bera Bera:

- Erdialderantz: Aldapetatik jaistean Easotik eta Askatasunaren Hiribidetik sartuko da, eta bukaerako geldialdia Urbieta 6an egingo du.  
Okendoko eta Gipuzkoa Plaza-Peñafloridako geltokiak kenduko dira. **Urbieta 6ra** eramango dira.
- Aiete alderantz: ohiko ibilbidea Urbieta 6tik aurrera.  
Gipuzkoa Plaza-Peñafloridako geltokia kenduko da. **Urbieta 6ra** eramango da.

#### • 8 Gros-Intxaurrondo, 13-Altza, 14-Bidebieta eta 29-Hego Intxaurrondo Sur:

- Erdialderantz: autobusak Colón pasealekuraino baino ez dira iritsiko, eta Mirakruz-Pinudian egingo dute bukaerako geldialdia (**8 linea**, Iparragirren).

Kursaaleko geltokia, Boulevardekoak, Gipuzkoako Plazakoa eta Askatasunaren Hiribidekoa kenduko dira. Mirakruzera eramango dira (**8 linea** Iparragirra).

- Auzoetarantz: ibilbide normala Mirakruz-Pinuditik (8 linea Iparragirren).

Boulevardeko geltokiak, Gipuzkoa Plazakoa eta Askatasunaren Hiribidekoak kenduko dira. Mirakruzera eramango dira (**8 linea** Iparragirra).

#### • **9-Egia-Intxaurrondo eta 42-Aldapa-Egia:**

- Erdialderantz: autobusak Frantzia pasealekutik, M<sup>a</sup> Cristina Zubitik eta Foruen pasealekutik iritsiko dira Santa Katalina Zubiraino (bukaerako geltokia), eta ohiko ibilbideari ekingo diote berriro.

Euskadi Plazako geltokia, Askatasunaren Hiribidea 6koa eta Okendo 18koa kenduko dira. **Santa Katalina Zubira** eramango dira.

- Egia alderantz: Santa Katalina Zubitik (bukaerako geltokia) beren ibilbideari berrekingo diote Egierantz.

Okendo 18ko geltokia eta Askatasunaren Hiribidekoa kenduko dira. **Santa Katalina Zubira** eramango dira.

#### • **31-Intxaurrondo-Ospitaleak-Altza:**

- Aiete alderantz: Lapurdi plazatik sartu eta Colón pasealekutik, Askatasunaren Hiribidera iritsiko da (geldialdia). Urbieta 6tik aurrera, bere ohiko ibilbideari ekingo dio berriro.

Kursaaleko geltokia eta Boulevardekoa kenduko dira, eta **Colónera eta Askatasunaren hiribidea 18ra** lekualdatuko dira.

- Intxaurrondo-Altza alderantz: ohiko ibilbidea

#### • **37-Rodil-Zorroaga:**

- Zorroaga alderantz: Colón pasealekutik joango da, eta Frantzia pasealekutik, eta hortik aurrera ohiko ibilbidea egiten jarraituko du.

Kursaaleko geltokia, Gipuzkoa Plazakoa eta Askatasunaren Hiribidea 7koa kenduko dira, eta **Colónera eta Iparreko Geltokira** lekualdatuko dira.

- Rodil alderantz: ohiko ibilbidea

Informazio gehiagorako, Dbuseko webgunera jo ([www.dbus.eus](http://www.dbus.eus)) edo 900 840 146 telefono zenbakira deitu.